



Droget (Alejandro Aramburu, 1885-1956)

*G*ure aldizkarixak hiru urte betetzen ditxuan honetan, izena emoten dotsan gizona akordura ekartzia pentsau dou.

Alejandro Aramburu Ormaetxea, "Droget" gaitxi-zenagaitxik izan zan ezagunaua. Ta gatzizen hori zergaitxik? Ba beti "drogetan", brometan ibiltzen zalako, "drogosua", bromista hutsa zalako.

Ermuko ostatuan jaixu zan 1885. urtian ta Ignacio Olañeta kaleko bere "Rancho" izeneko etxian hil zan 1956. urteko julixuaren 11n, bularreko anjiñak jota.

Laureano ta Modesta bere gurasuak izandako bost seme-alabetatik Alejandro izan zan gaztiena, lau nesken ondoik.

Ezautu ebenak pertsona edukau, sinpatiko ta ama-bletzat dakate, edonori laguntzeko prest beti. Gizon argixa ta balixo haundikua ei zan; umezalia gainera, beti ekan eurentzat berba kariñosuren bat.

Jateko kontuetan bere sasoirako aurreratuta etorri zan. Begetarianua ta garbi jataillia zanez, astian baten frutia bakarrik jaten eban ta egunero-egunero ogi integrala. Oiñ, lantzian behiñ txuleta edarrak be bai!

Pelotarixa zan baiña ez zan profesional modura debutatzera ailegau. Geruao A.G.I. taillarra zabaldu eban beste bi sozixokin batera.

Ez zan ez, geldik egoteko prendia! Logroño aldera pelota partidua jokatzera juan ta 10 urtetan ez zan Ermutik argitxu.

Bere abentura gosiak Mejiko aldera eruan eban ta Pancho Villakin Mejikoko reboluziñuan (1911-1920) hartu eban parte, hango nekazariei kendutako lurak bueltatzeko burrukan. Mejikoko historia liburuetan "El vasquito" moduan agertzen da.

Ermuan zazpi errepublikano euazen. Elixara juaten ez zian bakarrak zianez, fama eskasa eken. Danen jefia, Droget. 1931. apirillaren 14an proklamau zan 2. Errepublikia ta Eibarren goizeko 7retan, iñun baiño lehenao. Baiña Ermuan bezperatik hasitxa euan mobimentua. Droget ta bere kuadrillia, errepublikaren banderia hartu ta pasakallesian, klarinete ta guzti, euren "biba" ta "gora"kin Ermu osuari emon zotsien bueltia. Eibarrera jun ta arratsalderako manifestaziñua eixia pentsatzen euazela, Erregia oiñdiñok Madrillen euala ta errepublika horrek ez dabela urten zabaldu zan. Lotu banderok ta ixi-ixillik Ermura etorri zian barriro.

Frantzian eiñ zitxuan exiliatu urte mordotxua, ta hillian behin juaten jakon Claudia Gorosabel bere andria jateko ta erropa garbiz betetako otzara batekin.

Drogeten senidiak itxitxako erretratu honek "Comida campestre, moscorra muy grande" dakar idatzitxa atzekaldian. Gitarriaz ta bigote haundixaz, Droget. Gitarria zoragarri jote ei eban ta kantuan be politxo.

Errekaldera bidian hemendik junda ezkerretara dauan lehenengo itxurixai Drogetek emon zotsan itxurri formia, ze mendixan behera juaten zan lehen ura. Harrezkero Drogeten itxurrixa izan da, bai itxurrixa ta bai inguruko zelaixak.

Oiñ asko aldatuta dao ha parajia, baiña sasoi baten uda partera herriko ume danak bertara jutun zian baiñatzera, ogi puntatxo bat jan ta arratsaldia emotera.

Ermuar askorentzat ume denporako errekuendo politx asko ekartzen zitxuan leku horren izena galtzeko arriskutan euanez, gure aldizkarixaren bitartez iraun eraitxia pentsau genduan.

Estibalitz Gonzalez